



Euskal Herria Bildu Europar Hauteskunde aurrian

Kritika, alternatiba eta ekimena

ZERTARAKO GOAZ BRUSELARA?

Aitortza, artikulazioa, konponbidea eta aldarrikapena dira gure helburuak:

- Aitortza: Euskal Herriak erabakitzeko eskubidea duelako. Gure herriaren aitortza lortzeko baldintzak sortu eta urratsak emateko goaz Bruselara.
- Artikulazioa: Europar Batasuneko instituzioak estaturik gabeko herrien arteko eztabaida eta elkarlanerako espazio gisa erabiltzeko. Gure zerrenda horren adibidea da, Estaturik gabeko nazioen arteko lana artikulatzera goaz Europara.
- Konponbidea: Gure herriak pairatu duen gatazkaren ondorioak gainditzeko aliantzak lortzeko eremua delako. Era honetan, euskal preso politikoak kartzelatik ateratzeko Europar Batasuneko joko zelaian jardun nahi dugulako.
- Aldarrikapena: Euskal Herriko ezker independentistaren proiektuaren berri emateko, emakumeen eskubideak, politika feministak eta herritar ororen eskubide politiko eta sozialak aldarrikatzeko eta beste aktore ezkertiarrekin bestelako Europaren alde borrokatu behar dugulako.

EUROPAR BATASUNAREN ARGAZKIAREN PINTZELADA NAGUSIAK

- Europar Batasunak herri eta herritarren burujabetza mutilatzen du: EBeko instituzioek ez diote jendearen eskubide eta hauek behar dituzten politika publikoei erantzuten. Erakunde hauentzako demokrazia oztupo bat da, Grezian edo Catalunyan ikusi dugun bezala.
- EBk demokrazia pribatizatu du: EBko politika ekonomikoak aberats eta korporazioen interes neoliberalak eta populazioaren interesak aurrez aurre jarri ditu, 2011an abiatu zen gobernantza ekonomikoaren erregimenak erabaki ekonomikoen gaineko soberania ukatu eta demokrazia pribatizatu du.
- EB biodibertsitatea hondatzen ari da: EBko merkataritza politika “kautelazko printzipioa” higitzen ari da, Merkataritza askeko itunek merkatu mekanismoak ezartzen dizkio ingurumen politikari eta lobbyen eraginez karbono, keroseno edota glifosato sustantzien erabilera mantendu nahi izatea dira horren adibide argiak.
- EBk kasino ekonomia bultzatzen du: Maastrich-ko itunak eta geroztik Lisboako itunak finantza sistemaren liberalizazioa eta desarautzeari bide eman zioten, muturreko merkantilizazio eta pribatizazioari alfonbra gorria zabalduz. Sistema honen erdigunean kontrol demokratikotik at dagoen Europako Banku Zentrala (BCE) dago.
- EBko erabakiguneak gizon elite zuriak osatzen ditu: EBko hainbat lege eta itunek “lan berdinerako soldata berdina” printzipioa ezarri bazuten ere eta politika arlo guzietan genero-berdintasuna sustatzeko konpromisoa onartu bazuten ere, sistema neoliberalak emakumeak merkatu eta lehiakortasunaren menpe kokatzen ditu, kapitalismo heteropatriarkarraren adierazpen argian.
- Europar Batasuna herritarren eskubide eta lorpen sozialak desegiten ari da: Gaur eguneko Europako itunek dumping sozial eta fiskala azkartu eta austeritate politikak inposatzen dituzte, Lan-eskubideen murrizketak eta ongizate-sistemaren suntsidura, gastu publiko eta ondorioz zerbitzu publikoen desagerpena inposaketa horren ondorio zuzenak izan dira.
- EBk merkatua eta interesak lehenetsi ditu, pertsonen eskubideen ginetik: EBko itun neoliberalak eta politika inperialistek sortu dituzten faktore ekonomiko eta ekologikoen ondorioz, Planetako hegoaldeko populazio multzo handien desplazamenduak gertatu dira, gerla, lehorre, desastre ekologikoak, eritasuna, gose eta pobreziatik ihesean. Halere, pertsona hauek harrera jaso baino errefuxiatu eta migranteen kontzentrazio gune, desplazamendu masibo, kartzelaratzeko, prostituzio sare, bortxaketa eta trafikanteen diktadurara kondenatu ditu EBk...



- EB harresi batekin inguratu da eta herrien arteko elkartasuna eta lankidetzaz zigortzen du: EBren strategiaren arabera, botere militarra eta merkataritza elkarrekin doaz. Seguritateak esan nahi du, segurtasuneko ohiko lanabesak indartzea eta bestelako alternatibei ateak ixtea.

ZEIN DA GURE ALTERNATIBA?

Nola lortu dezakegu jendartea politizatzea eta demokratizatzea indarrean dauden politika neoliberalekin hausteko?

- Europar Batasuneko egitura politiko instituzionala hierarkikoa gainditu nahi dugu eta EHren aitortza politikoa lortu nahi dugu.
- Europar Batasuna diferentzien bizi-espazioa izatea nahi dugu: Europa ezberdinen etxea izan dadin arituko gara.
- Europar Batasuna borroken elkargune gisa erabiliko dugu: bizi duinaren alde, eskubide politiko eta sozialen alde, naturaren alde, hizkuntza minorizatuen alde, elkartasunaren eta herrien arteko lankidetzaren aldeko elkargune.
- Globalizazio ukatzailearen aurrean bizitza, gorputzak eta lurraldeen burujabetzak aldarrikatzera goaz.

Demokrazia, Soberania eta Eskubideen alde lan egitera goaz.

DEMOKRAZIA, SOBERANIA ETA ESKUBIDEAK

Demokrazia, soberania eta eskubideen alde lan egitera goaz eta horretarako neurri eta ekimenak bultzatuko ditugu, besteak beste:

- Euskal Herria estatua Europan izatea bultzatuko dugu, Estaturik gabeko nazioen presentzia segurtatzea, Erabakitze eskubidea EBko printzipio politiko izatea, EBko Parlamentuak egin ditzakeen ekimenetatik at europar itunetan hiritar zentsuraren aukera sartzeko, ICE edo Europar Hiritar ekimenei legegile natura ematea, EBko Kontseiluko, Eurotalde eta Kontseilu, Parlamentu eta Batzordeen arteko batzorde determinantei buruzko informazioa zabaltzeko beharra eta gardentasuna, Europar erakundeetatik kanpo eragin taldeak ezartzea bai eta eurodiputatu, komisario eta funtzionarioek eragin taldeekin dituzten hitzorduen errolda publiko egitea, Europako Parlamentuak EBZko presidentea hautatzeko eskubide izatea, Arau europarrak desobeditzeko eskubidea, Luxenburgoko printzipioen kontra jotzen dutenean...
- Inbertsio publikoa vs Murrizketa politika eta fiskalitate ituna. Europar funtsak ezin dira egituraren erreforma eskakizunen menpeko izan, Austeritate politiken bukaera, Estatukide guzien armonizazio soziala eta fiskala, Lanaren eskubidea konkurrentziaren printzipioaren ginetik kokatzea, Europako gutxieneko soldata ezartzea, Ekonomia soziala eta eraldatzailea sustatzeko plataforma bat sortzea, Lan eta enplegu baldintzak hausten dituelako, uberizazioa edota plataforma kapitalisten aurrean, ekonomia digital kooperatiboa bultzatzea, Europako Kontseiluko eskubide sozialen karta indarrean jartzea, Transakzio finantzarioen zerga europarra bai eta kapitalen mugimenduen kontrola eta ihesa fiskalaren aurkako zigorrak, Paradisu fiskalak bertan behera uztea...
- Sexu indarkeriaren aurkako plan politiko publiko integrala, Aborto eskubidea, Bortxaketa krimen mailako delitutzat aitortzea, Soldata berdintasuna Europako Zuzenbidean inskribatzea, Emakumearen eskubideen aldeko legislazio aurrerakoiak EBko estatukideetan armonizatzea, Emakumearen parte hartze eta ikusgarritasuna neurtu, bultzatu eta gauzatzeko Europako Berdintasunaren aldeko Institutua sortzea, Lidergo feministak sortze aldera erakunde publikoetako zuzendaritzetan kuotak ezartzea, EBko estatukide guztietan bikote homosexualen aitortza legala eta eskubide berdintasuna ziurtatzea, EBko estatukide guztietan Trans

diren pertsonen eskubideak eta despatologizaziorako neurriak aplikatzea, LGTBI+ pertsonen pairatzen duten indarkeria eta diskriminazioaren kontrako plan europarra osatzea...

- Ingurugiroari buruzko agenda: energia fosilen aldeko diru-laguntzak bertan behera uztea, eta debekatzea fosil energiaren esplotazio berriak. Ikatza abandonatzeko plangintza estrategikoa diseinatzea. Trantsizio ekologikorako erakunde bat sortzea. Energia berriztagarriren aldeko plan publikoa garatzea. Keroseno, eta glifosatoaren bazterketa progresiboa. Garraio publikoaren aldeko plan europarra sustatzea, Uraren doakotasuna, Sarraski ekologikoak -ekoizidoak- eta justizia klimatikoaren aldeko nazioarteko epaitegia sustatzea, Elikadura burujabetza, Animalien eskubideen aldeko karta europarra defendatzea, Merkataritza akordio noziboen bukaera: TTIP, CETA...
- Lankidetzeta eta elkarkidetzan oinarrituriko merkataritza sustatzea, Merkataritza askeko akordioak bertan behera uztea, Hegoaldeko herrietako ekonomia burujabetza defendatzea, Seguritateaz arduratzeko erakunde bakarra Nazio Batuak izatea, Nazioarteko desarme nuklearren aldeko prozesu bat bultzatzea eta NATO-k Europan duen misilen kontrako eskutua abandonatzea, Palestinako estatua aitortzea...
- Errefuxiatu eta migranteen eskubideen defentsa, aterpe eskubidea (Dublingo akordioa bertan behera uztea) eta giza korridoreak laguntzea, lhesean datozen LGBTQI+ pertsonen aterpe eskubidea bermatzea, Europako entitate zibil bat sortzea itsas erreskateaz arduratzeko, Schengen et Frontex bertan behera uztea, Turkia eta Libiarekin dauden akordio lotsagarriak bertan behera uztea, NATOren bukaera bultzatzea eta EBren militarizazioa bertan behera uztea...